

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

2021eko ekitaldiko ibien tasa ordaintzeko epea jakinarazteko eta tasa bera kobratzeko iragarkia

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2021eko urtarrilaren 8tik martxoaren 8ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, 2021eko ekitaldiko ibien tasaren ordainagiriak.

B) 2021eko martxoaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundee-tan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bu-legeetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinaraz-teko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 arti-kuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze-ko errekurtsua jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Bo201228B.

Oion, 2020ko abenduaren 28a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN